

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021EKO EKAINA

2021eko ekainean, bikoiztu baino gehiago egin da Euskal AEko landetxeetan maiatzeko sarreraren eta gaualdien kopurua

Apartamentu turistikoetan, sarrerek % 50,2 egin dute gora, eta gaualdiek, % 13,6

Euskal AEko **landetxeetan**, 2021eko ekainean, 10.393 sarrera eta 23.947 gaualdi izan dira; alegia, 2021eko maiatzaren aldean, % 125,7ko eta % 113,3ko gorakada egon da, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera.

2020ko martxoaren 14an COVID19aren pandemiari aurre egiteko dekretatutako alarma-egoeratik abiatuta, mugikortasunaren gainean izan den mugaketa aldatzen joan da. 2020ko ekaina sektore hori zati batean suspertu zen, baina ez zen iritsi, inolaz ere, aurreko urteetako ekainetako balioetara. Bestalde, pasa den maiatzaren 9tik aurrera –hirugarren alarma-egoera indargabetu zen–, berriro ekin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean pertsonen mugikortasunari. Baldintza horiek kontuan hartuta, oro har, zifren erkaketa aurreko hilekoekin egiten da, 2021eko maiatzeko zifrekin.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021eko ekaina

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/06	m/m-1 (%)	2021/06	m/m-1 (%)	2021/06	2021/05	plazaka		gelaka	
							2021/06	p.p.*	2021/06	p.p.*
EUSKAL AE	10.393	125,7	23.947	113,3	2,30	2,44	19,0	10,0	22,6	10,1
Estatukoak	9.669	124,3	22.427	116,6	2,32	2,40	-	-	-	-
Atzerritarrak	724	147,1	1.520	73,9	2,10	2,98	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	1.786	101,8	3.965	112,9	2,22	2,10	13,2	6,9	15,9	7,1
Estatukoak	1.673	98,9	3.763	119,3	2,25	2,04	-	-	-	-
Atzerritarrak	113	156,8	202	38,4	1,79	3,32	-	-	-	-
BIZKAIA	2.599	98,5	5.993	93,6	2,31	2,36	16,5	7,8	20,3	7,8
Estatukoak	2.460	99,4	5.692	105,9	2,31	2,24	-	-	-	-
Atzerritarrak	139	85,3	301	-9,1	2,17	4,41	-	-	-	-
GIPUZKOA	6.008	149,3	13.989	123,1	2,33	2,60	23,4	13,1	27,4	13,2
Estatukoak	5.536	147,6	12.972	120,9	2,34	2,63	-	-	-	-
Atzerritarrak	472	171,3	1.017	156,2	2,15	2,28	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landetxeetan erregistratutako pertsona gehienak estatuko herritarrak izan dira: 9.669 estatuko jatorrikoak eta 724 atzerritarrak. Aurreko hila dela eta, 2021eko maiatza, zifra horietan % 124,3ko gorakada egon da estatuko jatorriko sarreretan eta % 147,1ekoa, atzerriko jatorrikoetan. Gaualdien kasuan, aldeak, hilen arteko terminoetan, honako hauek izan dira: estatuko jatorria dutenek % 116,6 egin dute gora eta atzerriko jatorrikoenak, % 73,9.

Maila geografikoan, Gipuzkoa izan da sarreretan gorakada handiena izan duen lurraldea (% 149,3) eta, ondoren, Araba (% 101,8). Bizkaian, sarrerek % 98,5 egin dute gora. Hilen arteko bilakaera gaualdietan ere positiboa izan da: % 123,1ekoa Gipuzkoan, % 93,6koa Bizkaian eta % 112,9koa Araban.

Urte arteko erkaketa aztertuta –2021eko ekaina 2020ko ekainarekin– ikusten da Euskal AEn landetxeetan erregistratutako sarreraren kopuru osoa % 105,3 handitu dela, eta gaualdien kopurua, % 61,3. Sarreraren urte arteko gorakada aldatu egin da: Bizkaian % 73,7, Gipuzkoan % 122,5 eta Araban % 106,0. Gaualdiek joera berari eusten diote: % 29,7ko gorakada Bizkaian, % 39,8koa Araban eta % 89,3koa Gipuzkoan.

Jatorriaren arabera eta aurreko urteko ekainaren aldean, sarrera nazionalak % 97,2 egin dute gora eta atzerriko jatorrikoek, % 355,3. Gaualdien kasuan, gorakada % 63,9koa izan da estatuko jatorriaren kasuan, eta % 30,6koa, atzerrikoaren kasuan.

2021eko ekaineko batez besteko egonaldia 2,30 egunekoa izan da, eta aurreko hilean, 2,44koa, eta 2,93koa 2020ko ekainean. Datua lurralde historikoaren mailan aztertzen badugu, balioak honako hauek dira: 2,22 egun Araban (2,10 izan zuen 2021eko maiatzean); 2,31 egun Bizkaian (maiatzean izan ziren 2,36 egunak baino pixka bat gutxiago), eta 2,33 egun Gipuzkoan (maiatzean 2,60 egun).

Biztanleko okupazio maila % 22,6koa izan da ekainean; ehuneko 10,1 puntuko gorakada egon da aurreko hilarekin alderatuta. Lurralde historikoen arabera, okupazio mailak honako hauek izan dira: 15,9% Araban, 20,3% Bizkaian eta 27,4% Gipuzkoan. Modu paraleloan, hilen arteko ehuneko 10,0 puntuko gorakadaren ondoren, Euskal AEko landetxeetako plazen araberrako okupazio maila ekainean % 19,0koa izan da. Araban, % 13,2koa; Bizkaian, % 16,5koa eta Gipuzkoan, % 23,4koa.

Urte artean, ekaina beste ekainen aldean, okupazio mailek lortu dute mantentzea logelen kasuan (ehuneko 0,1 puntu) eta pixka bat igotzea plazen kasuan (ehuneko 1,6 puntu).

2021eko ekainean, landetxeen % 18,1 itxita egon dira hileko egun guztietan, maiatzean kontabilizatutakoak baino batzuk gutxiago (% 19,5), baina kopurua 2020ko ekaineko % 33,4 baino baxuagoa izan da. Lurraldeen arabera, landa-establezimenduen % 18,2 itxita egon dira ekainean Araban, % 17,2 Bizkaian eta, azkenik, % 18,5 Gipuzkoan.

APARTAMENTU TURISTIKOAK

Apartamentu turistikoak direla eta, 2021eko ekainean, sarrerek eta gaualdiek honako balioak izan dituzte: 6.062 eta 23.910, hurrenez hurren. Aurreko hilaren aldean, sarreraren igoera % 50,2koa izan da, eta gaualdiena, % 13,6koa.

Estatuko jatorriko sarrerek % 53,1 egiten dute gora hilen arteko terminoetan eta atzerriko jatorrikoek, % 33,7. Gaualdien kasuan, gorakadak % 14,3koak izan dira estatuko jatorrien kasuan eta % 10,8koak, atzerriko jatorrien kasuan.

Lurralde historikoen arabera, 2021eko maiatzari dagokionez egon den bilakaera ez da homogenea izan. Gipuzkoan, gora egin du sarrera-kopuruak % 74,2, Araban % 45,7 eta Bizkaian % 35,7. 2021eko ekainean kontabilizatu diren gaualdiak, guztira, % 8,6 handiagoak izan dira Araban maiatzean kontabilizatutakoak baino, eta % 11,1 handiagoak Gipuzkoan kontabilizatutakoak baino. Bizkaiaren kasuan, % 22,7 handiagoak izan dira.

Urte arteko bilakaera dela eta, igoera sarreretan eta gaualdietan antzekoa izan da: % 122,4 lehenengoetan eta % 116,9 bigarrenetan. Lurraldeen arabera, urte arteko aldakuntzaren banaketa honako hau da: Araban sarrerek % 11,2 egin dute gora eta gaualdiek, % 28,3; Bizkaian, hurrenkera berari jarraikiz, tasak % 118,4 eta 85,5ekoak izan dira, eta, azkenik, Gipuzkoan, igoera gehien izan dituen lurraldean, sarrerek % 175,6 egin dute gora eta gaualdiek % 299,6, 2020ko ekainarekin alderatuta.

Ekainean apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,94 egunekoa izan da, aurreko hileko 5,22 egunak baino gutxiago, baina 2020ko ekainean kalkulaturako 3,86 egunen antzera.

Azken hileko batez besteko egonaldiaren beheranzko bilakaera horretan, lurraldeko portaera desberdina izan da: Araban, maiatzeko 10,97 egunetatik ekaineko 8,17 egunetara igaro da; Bizkaian, pixka bat murritzuta da (2,63 egun maiatzean eta 2,37 egun ekainean), eta, Gipuzkoan, maiatzeko 7,23 egunetatik ekaineko 4,61 egunetara.

Sarrerak, gauraldiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021eko ekaina

	Sarrerak		Gauraldiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/06	m/m-1 (%)	2021/06	m/m-1 (%)	2021/06	2021/05	plazaka		apartamentuka	
							2021/06	p.p.*	2021/06	p.p.*
EUSKAL AE	6.062	50,2	23.910	13,6	3,94	5,22	23,2	3,5	43,2	0,9
Estatukoak	5.271	53,1	19.276	14,3	3,66	4,90	-	-	-	-
Atzeritarrak	791	33,7	4.634	10,8	5,86	7,07	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	701	45,7	5.733	8,6	8,17	10,97	20,9	2,3	51,8	1,3
Estatukoak	672	48,4	4.902	7,1	7,30	10,11	-	-	-	-
Atzeritarrak	29	2,7	831	17,8	28,25	24,63	-	-	-	-
BIZKAIA	2.926	35,7	6.950	22,7	2,37	2,63	20,0	4,0	37,2	1,8
Estatukoak	2.568	36,0	5.664	19,0	2,21	2,52	-	-	-	-
Atzeritarrak	358	33,8	1.286	42,6	3,59	3,37	-	-	-	-
GIPUZKOA	2.434	74,2	11.228	11,1	4,61	7,23	27,4	3,9	42,8	0,3
Estatukoak	2.030	84,3	8.710	15,7	4,29	6,84	-	-	-	-
Atzeritarrak	404	36,6	2.518	-2,3	6,23	8,71	-	-	-	-

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

p.p.*= aurreko hilabeteko berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Euskal AEko apartamentuen arabera okupazio maila, 2021eko ekainean, % 43,2koa izan da. Lurralde historikoen arabera, Araban % 51,8 egin du gora; Gipuzkoan, % 42,8, eta Bizkaian, % 37,2.

Plazen arabera okupazio maila txikiagoa da, eta % 23,2koa izan da Euskal AE osorako. Lurraldeen arabera, Gipuzkoan okupazio maila % 27,4koa izan da; Araban, % 20,9koa, eta, azkenik, Bizkaian, % 20,0koa.

Euskal AEn, apartamentuen % 16,7 itxita egon dira 2021eko ekaineko egun guztietan, aurreko hilean baino ehuneko 1,2 puntu gehiago. Hileko egun guztietan itxita egon diren apartamentuen proportzioa % 16,7koa izan da Araban (maiatzean bezala); % 17,9koa Gipuzkoan (ehuneko 1,8 puntu gehiago maiatzean baino), eta, azkenik, % 14,7koa Bizkaian (ehuneko 0,5 puntu gutxiago maiatzean baino).

Informazio-oharra

Establezimendu turistiko hartzaileen inkestaren erantzun-tasa, ekainean, % **96,8** izan da landetxeen kasuan, eta % **87,7** apartamentu turistikoek kasuan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62